

## a) Araudiaren, ikasgaiaren eta curriculumaren gaineko ezagutza

### *1. maila: Oinarrizkoa*

Ez ditu ezagutzen indarreko hezkuntza-araudia eta curriculum-a.

Ez du ezagutza zientifiko nahikorik, irakasten duen arloan edo ikasgaietan. Akats kontzeptual handiak ditu.

Ez ditu ikasleen eskubideak eta betebeharrak bermatzeko gako diren esku-hartze protokoloak ezagutzen (jazarpenaren aurreko protokoloa, babesgabetasun-egoeren aurreko protokoloa...).

### *2. maila: Garatze bidean*

Hezkuntza-araudiari eta curriculumari buruzko oinarrizko ezagutza dauka.

Ez du ezagutza zientifiko nahikorik, irakasten duen eremuko, arloko, ikasgaiko, moduluko... edukiari buruz eta edukien arteko edota edukien barneko harremanari buruz.

Ikasleak babesteko protokoloen gaineko ezagutza mugatua du.

### *3. maila: Garatua*

Indarreko hezkuntza-araudia ezagutzen du, eta barneratuta ditu curriculumeko edukiak.

Ezagutza zientifiko sakona eta eguneratua du irakasten duen eremuko, arloko, ikasgaiko, moduluko... edukiari eta edukien arteko eta edukien barneko harremanari buruz.

Ezagutzen ditu ikasleen eskubideak urratzeko arriskuaren aurrean jarduteko orientazioak ematen dituzten protokoloak.

### *4. maila: Aurreratua*

Gai da araudia eta curriculum ofiziala hobetzeko proposamenak egiteko. Curriculum-programak garatzeko laguntza eskatzen zaio ikastetxe barruan edo kanpoan.

Sakonki ezagutzen ditu ikasleak babesteko protokoloak eta gai da protokolo horiek hobetzeko proposamenak egiteko.